



Larretxea, erdian, lehengo asteartean, liburua aurkeztu baino lehenxeago. :: MIKEL FRAILE

«Gay Harrotasunaren Egunerako egin nuen poema hark kostu bat izan zuen»

Hasier Larretxea Idazlea

Autobiografia tankerako liburua plazaratu du Baztanen jaio eta aspalditik Madrilén bizi den Hasier Larretxeak

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Aste honetan, Hasier Larretxeak (Arraioz, Baztan, 1982) 'Larremotz' liburua aurkeztu zuen. Autobiografia tankerako obra da, hainbat atal laburrez osatua. Baztango familia ezagun batean jaioa da: aita herri-kiroletan gogotik nabarmendu da, batik bat harri jasotzen eta txinga eroaten. Eta osaba du Donato Larretxea aizkolari sonatua. Duela zortzi urte, 24 zituela, Hasier Madrilera aldatu zen. Lehendik poesia liburua batzuku dituz plazaratuak, azkena 'Atakak'. Lanbidez gizarte-hezitzailea da. Buruko gaixotasun kronikoak dituen jendearekin egiten du lan.

–Autobiografia tankerako liburua idatzu duzu. Nolatan? Idazteak on egiten dizulako agian?

–Behin batean, hasi nintzen amatxirekin izandako solasaldiak grabatzen. Eta grabaketa horietatik hasi nintzen: herriko usadioak, lehengo bizi-

moldea... Hortik abiatuta, beste ariketa bat egin nuen: nire bizipenak, familia inguruko gauzak... Gainera, poesiak ez zuen balio nik kontatu nahi nuen horrendako. Jende umilen, nekazarien bizitzaren berreskuratzeko bat ere bada liburua hau.

–Hemen liburuan, hiltzera doan mundu bat azaltzen da.

–Guztiz. Lehen esan dizudana: berreskurapen bat da liburua, baita hitzen aldetik ere.

–Nolakoa zen zure amatxi?

–Goxoa, eskuzabala. Berez, azken urteak arte ez nintzen berarekin modu sakonean mintzatu. Hau da, bere jakinduria guzti hori ez dut liburu honetan jarri artio bildu. Bazen pertsona bat animaliekiko ikaragarritzko maitasuna zuena. Gogoratzen naiz nola joaten ginen txikitan bildotsei esnea ematera. Gaztain biltzeak eta iratze motzak ere gogoratzen ditut.

–Zu Baztango Arraiozkoa zara. «Herri txikia infernu handia» da esareira. Irudipena daukat zuk liburuan herria ez duzula idealizatzen.

–Argi-ilun horiek ageri dira bai. Niretzat, literatura hau ez da denborapasa hutsa, eta saiatzen naiz arrakalak agertzen, korapiloak, absentiak, erran gabekoak, pairatutakoak ere bai. Gertakari gogorak agertzen dira baita ere liburuan. Amatziz gain, familiako beste kide batzuen heriotza gogorak ere kontatzen ditut. Pentatzten dut liburua izan daitekeela ha-

raneko testigantza bat ere, non sakonean Baztan dagoen, baina izan zitekeen beste haran bat ere.

–Aspaldi alde egin zenuen herri-tik. Orain nolako harremana duzu harekin, maitasun-gorrotzkoa?

–Izan nuen dena gibelean uzteko beharra. Izan nuen abizen baten pisua ere. Nigan-dik espero zutena ez nuen betetzerik izan. Ibili nintzen gazteen aizkolari txapelketetan, baina ez nintzen iaioa. Nahiz eta ahaleginak egin aitaren nahia betetze aldera, azkenean joen egin nintzen. Ikusi nuen Madrilén zerotik hasteko beharra. Iraganarekin baretzeko eta baketzeko ahalegina izan zen hura.

–Eta Madrilén lasaia gozatu zinen...

–Guztiz. Hemen bizi nintzenean ez nintzen geldirik egoten. Madrilera joan artio ez nuen ariketa intimorik egin. Orduan hasi ziren kuestiona-

mentuak. Distantzia fisiko eta emozionalak beste ikuskera bat eman zidan. Liburua, azken batean, bilaketa pertsonal baten emaitza da; eta beharra.

–Liburu ausarta da. Gauza intimoak esaten dituzu, adibidez etxean arazoak izan zenituela esan zenienean homosexuala zinel eta mutilak gustuko zenituela. Hori kontatzea ez da berriketa, ariketa gogorra da.

–Zinez. Orain ulertzen dut gurasoen jarrera horiek, badakit-eta nondik datozen. Badakit zein urtetan bizi ginen, nolako beldurak zeuden... Gauza ezezagunak ziren.

–Ulergarria da beste be-

launaldi horren erreakzioa.

–Semearen ongizatearengatik jakatu zuten horrela. Biluzte-ariketa indartsua egin dut, saiatu naiz sintze-

ridadetik egiten, eta atzo hizketan Xorroxin Irratian, Nerearekin, esan zidan oso ausarta izan nintzela lehen ere, aipatu zidan nola aspaldi 'Ttipi-Ttpa' aldizkarian poema bat ateratu nuen Gay Harrotasunaren Eguna zela-eta. Horrek izan zuen kostu bat, oso gaztea nintzen... Sentitzen nuen indar berezi batez, indar fortzatu batez ateratu behar nintzela kalera, eta iritsi zen une bat Madrilera joateko aukera sortu zitzaizkidan, eta horri eskerrak eman behar dizkiot, gero, esan bezala, neure baitara bildu ahal izan nintzelako. Nerabezaroen ez nuen gauzak ongi egin, nahiz gero esan didaten erreferente izan nintzela.

–Nola trebatu zara hizkuntza aldetik, idazkera aldetik?

–Irakurketen bitartez. Gazte-gaztetatik, literatura babestokia zen niretzat. Uste liburuan poetaren itzala nabari daitekeela, eta lirismoak joera hori... Kimaketa ere egin dut; maitate dut kondentsazioa eta fragmentazioa. Hala ere, aitor dut liburu honetan bi eratako testuak ageri direla: batzuk metaforikoagoak, surrealistagoak. Nire heziketan, badute garrantzia irakurketa autobiografikoak.

–Aipatu adibide batzuk.

–Marisa Maderi-ren 'Verde agua'. Triestekoa zen, Claudio Magrisen emaztea izan zen. Liburu horretan ibilbidea egiten du familiaren arte-tik eta Italia-Jugoslavia arte-tik. Oso maitatea duan argitaletxe batek ateratzen, Minúscula argitaletxeak. Eta beste bat, 'En presencia de la ausencia', Mahmud Darwix-ena. Palestina-tik kanpora joan behar izan zuen, erbesterratura, eta bere azken urteetan haurtzaroari buruzko liburu hori ateratu zuen. Ezlekuei buruzko obra bat da.

–Zeure liburuan askotan esaten duzun hitz bat: absentsia.

–Ni gustura itzultzen naiz haranera, zoriontsua naiz familiarekin, baina kanpora joaten zaren bizi izatera, bizita-molde horretara egiten zara, eta are gehiago Madril, Bartzelona edo hiri handi bati buruz ari bagara. Bai, bada melankolia-kutsu piska bat ere liburuan, ni haranean ez egotearen melankolia hori...

–Orain gai zinateke baserriko lanak egiteko?

–Interesatzen zait bizitza-molde horren transmisioa, baina orain Madrilén bizi naiz. Hala ere, eta kontatzen dut liburuan, orain urte batzuk, etxera etorri nintzen batean, aitaren ondoan jardun nintzen egur batzuk moztzen. Bera pozik zegoen. Oraindik ere erraten dit harri-jasotzaile baten gorpuzkera dudala, eta saiatuko banintz, hortxe... Modu sano eta natural batean erraten du. Duela urte batzuk, aitak ulertu zuen nire bizitza-aukera, eta gainera defenditzen du. Errespetu-ariketa indartsua da gure harremana, eta liburuan azaltzen dut.

–Eta liburuaren izenburua, nondik nora?

–Aitari zuzen-zuzenean egindako omenaldia da. Berak askotan erraten du larre motzean hazitako delak. Mendi artean galdutako baserri batean jaio zen, baliabiderik gabeko baserria. Aita oso gazterik zendu zitzaion.



LARRE MOTZETIK
HASIER LARRETXEAK

Generoa:
Autobiografia.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 141.
Prezioa: 16 euro.

«Oraindik ere, aitak erraten dit harri-jasotzaile baten gorpuzkera dudala»

«Izan nuen Madrilera joateko aukera, eta eskerrak. Neure baitara bildu ahal izan nuen»